



Erretxina eta hura lortzeko metodoa

Helburua: Jardueraren helburua ikasleek produktu jakin bat lantzea da, kasu honetan erretxina eta hura lortzeko metodoa.

Materialak: Beharrezkoa da eskolaren inguruan erretxinatzeko moduko zuhaitzen bat egotea. Badira erresinazio metodo bat baino gehiago, baina kasu honetan Hughes metodoa jarraituko da, bere sinpletasuna dela eta.

Erresinazio-prozesurako, hainbat tresna erabiltzen dira, honako hauek direlarik:

1. Zeioa: Erretxina poterantz erortzeko norabidea markatzen duten zizelkadurak egiteko erabiltzen den tresna da.
2. Ilargi-erdia: Txapa ipiniko den zirrinda markatzeko erabiliko den tresna da.
3. Txapa: Zuhaitzetik jaisten den erretxina jaso eta poterantz bideratzen duen objektua da.
4. Potea: Erretxina jaso eta gordetzen duen objektua da.

Erretxinatzeko tutorialaren bideoa:

- Hugues metodoa :

<https://www.youtube.com/watch?v=31ybZhaRRZs>

- Azido sulfurikoarekin estimulatutako azal-pikaren metodoa::

https://www.youtube.com/watch?v=_5m0FKYDV84

Garapena: Pinu bat bilatzen da ikastetxearen inguruan, berau erretxinatzeko prozesua egin ahal izateko.

Erretxinatu nahi den pinua hautatu ondoren, erresinazio prozesuarekin hasiko da. Horretarako, lehenengo urratsa pinuari azala kentzea izango da, eta ondoren, zuhaitzean 12 cm zabal eta 20 cm garai den zizelkadura bat irekiko da.

Behin lan hau egin ondoren, metalezko xafla edo txapa joango den zirrikitua markatzeari ekingo zaio, horretarako ilargi-erdi izeneko tresna erabiliz. 1 cm-ko sakonera emango zaio zirrikituari eta berau, zizelkaduraren beheko aldean egingo da, erretxina goitik behera eror dadin.

Hau egitean, txapa edo xafla metalikoa markatutako zirrikituan jarriko da, eta honekin batera, potea bere lekuan jarriko da erretxina gorde dadin.

Erretxina kristalizatu eta zauria itxi egiten da: 4-8 egunetik behin freskatu behar da, zauriaren goiko aldetik ezpal berriak erauziz.

Erresinazio-denboraldi batean, zauria 50 cm-ra iristen da. Hurrengo urtean beste bat egiten da goitik, eta hurrengoan beste bat gorago, guztira 5 edo 6 zauri egin arte.

Ondoren, prozesu berbera hasiko da zuhaitzaren beste aurpegi batean.